



Gurean

berdintasuna



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
13. zbk. 2022 Martxo



**Maitatu daiteke
beste era batera?**



MAITATU DAITEKE BESTE ERA BATERA?

Maitasun erromantikoak lotura du gizakien antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoarekin. Gaur egun, maitasunaren ideia kapitalismoaren eta patriarkatuaren inguruan egituratuta dago, eta harremanetan matxismoa iraunarazten duten mitoen bidez transmititzen da. Hala ere, maitasuna gizarte-erakuntza da, eta, hortaz, aldatu egin daiteke, norbanakoei zein kolektiboari dagokienez, gutxiago sufritzen eta gehiago gozatzen hasteko.

Sinetsi ohi da maitasunari buruz ez dela ezer ikasi behar. Maitasuna artea da, ordea, eta, artea den aldetik, “diziplina, arreta eta pazientzia behar ditu. Ikasketa-prozesuak eta entrenamendu asko behar ditu”. Hala dio Erich Fromm alemaniar soziologoak *The art of loving* liburuan. Mari Luz Esteban gizarte-antropologoaren iritziz, oinarrizkoa da maitasuna aztertzea, “jendarte honen funtsezko zutabeetako bat baita, sistemari eusten dion argamasa, maila politikoan, ekonomikoan, generoarenean, klasearenean, etab.”

Baina, nork irakasten du maitatzen? Nola eraikitzen dira maitasun-istorioak? Antzera ikasten dute maitatzen emakumeek eta gizonek? Kate Millet idazle feministak utzitako ondarean, galdera horien erantzunak laburbiltzen dituen esaldi bat dago: “Maitasuna emakumeen opioa izan da, masena erlijioa izan den bezala. Guk maitatzen genuen bitartean, gizonek gobernatu egi- ten zuten. Baliteke maitasuna berez txarra ez izatea, baina bai, ordea, emakumeak limurtzeko eta zentzu guztietan menpeko bilakatzeko erabili zen modua. Desberdina da izaki askeen artean”.

Maitatzeko erak konplexuak dira, eta gizarte bakoitzak maitasuna eraikitzen duen moduarekin zerikusia dute. “Maitasunari buruzko pentsamendu hegemonikoa ezberdintasunezko gizarte-ordena baten jatorria da, eta generoaren ikuspegitik begiratu behar zaio, oso modu desberdinean aplikatzen baitzaie gizonei eta emakumei”, dio Estebanek. Mendebaldeko kulturaren, maitasun erromantiko edo pasiozkoaren ideala irakatsi, ikasi eta erabiltzen da. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, familiaren, eskolaren, gizartearen bitartez, eta, batez ere, kultur industriaren eta hedabideen bitartez. “Maitasuna eraikitzeke dugun era gure antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoarekin lotuta dago. Gaur egun, gure maitatzeko era kapitalismoan eta patriarkatuan oinarrituta eraikitzen dugu, harremanetan matxismoa iraunarazten duten mitoen bidez”, dio Coral Herrerak, Humanitateetan doktore eta idazle feministak.

Maitasun erromantikoaren mitoak

Maitasun erromantikoaren mitoak zabaldua dauden maitasunari buruzko ideiak eta iritziak dira, egiazkotzat onartzen direnak eta errealitatea sinplifikatzea eta desitxuratzea dakartenak. Ondorioz, pertsonen jokabideari eragiten diote. Masa-kulturaren bidez transmititzen dira, batez ere gazteei zuzendutakoaren bidez: telesailak, filmak, bideojokoak, komikiak, aldizkariak, abestien hitzak... Horrek arazo bat sortzen du: ikasketa hori dela medio, zilegitasuna ematen zaie bikotearen barruko zenbait portaera eta jokamolde bortitzi. Normalizatu egiten dira gatazka, bestearenganako erabateko grina, jelskortasuna eta are indarkeria ere, eta jarrera erromantikoekin parekatzen dira. “Gizarte

honek ikusten irakasten digu, baina ez behatzen; entzuten, baina ez aditzen. Hartara, kaltegabetzat dugun mezu bat bidaltzen digute, baina horrek gure nortasuna eraikitzen du”, ohartarazten du Marina Marroquí aktibista eta gizarte-hezitzaileak “Hori ez da maitasuna” gazteentzako tailerrean.

Azken urteotan, zenbait ikerketak berretsi dute “maitasun erromantikoaren mitoak barneratzea arrisku-faktorea dela genero-indarkeria sortzeko”, nerabeen artean batik bat. “Zenbait jokabide maitasun-frogatzat hartzea tratu txarra justifikatzeko modu bat izan daitekeelako gertatzen da hala”, adierazi dute Enrique Bonilla-Algoviak y Esther Rivasek, “Maitasun erromantikoaren mitoak eta genero-indarkeriaren normalizazioa nerabeen artean” ikerketan. Horregatik, beharrezkoa da belaunaldi batetik bestera transmititutako sinesmen eta eredu horiek deseraikitzeke lan egitea. Herreraren ustez, “funtsezkoa da mito horien erraiak agerian jartzea, eta, hala, idealizazio horien faltsutasuna erakustea; gure harremanak eskasten dituzte eta talka egiten dute errealitatearekin, zeina, oro har, ez den izaten maitasunezko fantasia bezain ederra eta zoragarria”.

Maitatu daiteke beste era batera

Berri on bat: maitasun erromantikoaren eskema, azken batean, gizartearen erakuntza da, eta, beraz, alda daiteke. Batez ere, garrantzitsua da maitasun erromantikoaren sareak neskatoak ez harrapatzea, “sozialki maitasunerako konfiguratu gaituzte eta”, ohartarazi du Marcela Lagarde antropologoak. “Zer esanahi du gaur egun emakume izateak? Ironiaz-edo, esan daiteke emakume izateak maitasun-erdigune ho-

ZABALEAN

AMPLIANDO

rrekin bizitzea edo hura ezbaian jartzea darrakrela. Izan ere, beren bizitzen ardatz nagusitzat maitasuna ez duten emakumeak, nolabait ezbaian jarriz eta deszentralizatze-lan bat eginez iritsi dira horretara”, dio Estebanek.

Emakumeek maitasuna deszentralizatzea lor dezaten, gakoetako bat, Herreraren iritzi, “persona helduen gisa maitatzen ikastea da. Helduen rola betetzen dugu esparru guztietan, maitasunarenean izan ezik. Horretan, haurren pare ibiltzen gara zeharo, eta, gainera, uste dugu gertatzen zaigunak ez duela gurekin zerikusirik. Haatik, maitasuna ez da suertea, ezta loteria ere. Gure emozioen erantzule izan behar dugu, eta helduek bezala maitatu”. Hori bezain garrantzitsua da maitasun-sare zabala eratzea, emozionalki pertsona bakarraren mende ez egoteko. “Leinu-kontzeptua berreskuratu behar da. Zenbat eta gehiago dibertsifikatu, zenbat eta maitasun eta amodio gehiago eduki, orduan eta aberatsagoak izango gara. Maitatzeko dugun gaitasuna pertsona bakararengan zentratzea oso erredukzionista da”, ohartarazi du Herrerak.

Gehiago eta hobeto maitatzeko aukera emango duten lanabesak sortzeko lana banakako zein taldekako prozesua da. “Elkar maitatzeko modu asko dago. Ez dago maitasun-eredu perfekturik. Uste dut norberak aurkitu behar duela maitasunaz gozatzeko era, bizitzaren une bakoitzean. Hori bezain garrantzitsua da gai hau sozializatzea eta eztabaidatzea, parlamentuetan, biltzarretan, sindikatuetan, gizarte-mugimendutan..., baina, batez ere, eskoletan eta hedabideetan. Erromantikoa politikoa dela



diodanean, esan nahi dut elkar maitatzeko modua alda dezakegula, gutxiago sufrizten eta maitasunaz gehiago gozaten hasteko”, biribildu du Herrerak.

Interesgarria / De Interés

WEBGUNEA




HEZKIDETZA GUNEA

II Hezkidetzeta Planaren baitan sortutako materialak jasotzen dituen Hezkuntza Saileko web orria da. Bertan, II Hezkidetzeta planaz gain, ikastetxe eta ikasgelarako materialak, bibliografia, web ezberdinak, lankidetzarako erakundeak eta praktika onak aurkitu daitezke.

[Hezkidetzagunea](#)

LIBURUA



KARENA

Amatasunarekin loturiko hainbat gai, normalean isilpean eta ezkutuan geratzen direnak agerira dakartza Alaine Agirrek, intentsitatez eta hunkiduraz idatzirik eleberri honetan. Egileak ohi duen indarrez eta pasioz kontatzen digu Sara Mendizabal protagonistaren ibilbidea, lirismoz eta musikaltatez, minetik edertasuna sortuz, gorputzaren barrutik unibertso oso bat eraikiz.

BIDEOA

Libres



LIBRES Y VALIENTES

Beldur barik 2021 Lehiaketako 2 kategoriako irabazlea: «LIBRES Y VALIENTES»
EGILEAK: Ainhoa García, Kunda Cisse, Obehi Desire Otasowie, Trinity Pembele, Amadou Koung, Antonio Baltasar Ndong, Junior Acha, Esther Da Silva, Eugenia Cessay, Vanessa Prieto.

[Bideoa Ikusi](#)

Neskei euren gorputz eta itxura fisikoaren gaineko presiorik gabeko etorkizun bat eskaintzea eskatzen du Emakunderen martxoak 8ko kanpainak

Aurten, kanpainaren gaia da neskek, eta emakumeek oro har, euren gorputzen eta itxura fisikoaren gainean jasaten duten gehiegizko presioa: gorputzen nahitaezko “perfekzioa”, ezarritako edertasun-kanon zorrotza, hipersexualizazioa eta haien gorputzen kontzeptualizazio gero eta merkantilistagoa.

Lau neskato dira kanpainaren protagonistak, eta, Berdintasunerako sailburuak azaldu zuenez, helburua da gizarteari erakustea garaiz gaudela emakumeen hurrengo belaunaldiei beste etorkizun bat eskaintzeko, euren gorputzen eta itxura fisikoaren gaineko presiorik gabe bizi daitezzen, presio horrek asko mugatzen duelako haien bizitza. Artolazabalek adierazi zuen kanpaina ez dela salaketan geratu nahi, baizik eta itxaropen mezu bat zabaldu nahi duela: “Garaiz gaudela, datozen belaunaldiei etorkizun hobea eskaintzeko aukera dugula eta eskaini egin behar diegula”.

Kanpainaren goiburua nagusia galdera bat da, neskatoek berek egiten dutena gorputz “perfektu” eta hipersexualizatuen irudien bonbardaketaren aurrean. Egunero jasotzen dituzten horrelako irudiak sare sozialen, bideojoko askoren, komunikabide eta modaren sektore batzuen aldetik. Hauen aurrean, neskek galdetzen dute: Benetan? Hau da guretzat nahi duzuen? Eta leloa honako mezu honekin amaitzen da: “Garaiz gaude neskatoei beste etorkizun bat es-



kaintzeko, haien gorputz eta itxuraren gaineko presiorik gabe”.

Artolazabalek esan zuenez, “hurrengo belaunaldiak berdintasunaren belaunaldiak izatea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dugun helburu nagusia”. Hain zuzen ere, horren adibide da Generation Equality nazioarteko ekimena, Berdintasun sailak Emakunderen bidez sustatzen duena.

Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legea onartu du



Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legea onartu du. 2005ean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu ondoren, legeak “beste urrats irmo bat egiten du berdintasunerantz”, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalen hitzetan. **Informazio Gehiago**

BA AL ZENEKIEN?

Zer da Soldata-arrakala?

Gizonezkoen eta emakumezkoen batez besteko soldaten arteko aldea, desparekotasunaren ondorio nagusietako bat.

Zenbateko da?

- %24 urteko batez besteko irabaziari erreparatuta
- %14 ordu bakoitzeko irabaziari erreparatuta.

Arrazoiak?

- orduko ordainsaria txikiagoa izatea eragiten dute: zuzenean ko soldata-bereizkeria, sektoreen eta lanen araberrako segregazioa, eta kris-talezko sabaia.

CORAL HERRERA



Coral Herrera Gómez Humanitateetan doktorea, idazlea, feminista eta genero-teorian aditua da. Haren lanaren gai nagusia maitasun erromantikoaren kritika da. Patriarkatuak sortutako produktua deladío, genero-desberdintasunen eraikuntza hierarkikoa egiteko erabakigarria. Bere lanean, maitasuna ulertzeko eta bizitzeko modu desberdinak deladela aldarrikatzen du, eta horri buruzko zenbait liburu argitaratu ditu:

Nola definituko zenuke maitasun erromantikoa, hitz gutxi erabilia?

Maitasun erromantikoa gizarte-eraikuntza da, gure kulturatik oinordetzan jaso dugun mito-sorta bat, erlijio baten antzekoa. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen dugu, familiaren, hedabideen eta kulturaren industriaren bitartez. Emakumeok mito erromantikoaren zaleagoak gara. Izan ere, maitasuna erdigunean jartzen irakatsi digute, eta gizoni ez. Mitoak saltzen dizkigute: bikotekiderik gabe ez garelaz ezer, ez gaudela osatuta, babestu eta lagunduko gaituen gizon bat behar dugula, etab. Haiei, berriz, alderantzizkoa irakasten zaie, maitasuna beren bizitzaren beste osagai bat izan dadin, baina ez erabakigarria.

Nerabezaroan errazagoa da maitasun erromantikoaren sarean harrapatuta geratzea?

Adin horretan pertsonak zaugarriagoak dira mito erromantikoaren aurrean, erreferente asko behar diren sasoi bat baita, eta kulturalki eskaintzen dizkiegun eredu bakarrak hauek dira: ezkontzearekin obsesioa duten emakume nartzisista eta egozentrikoak, eta emaku-

meen bilduma egitearekin obsesioa duten gizon eder, aberats eta famatuak. Premiazkoa da bestelako tramak, bestelako pertsonaiak, bestelako kontakizunak ematea, nola edo hala. Baina, batez ere, tresnak eman behar dizkiegu, jakin dezaten zergatik duen kulturaren industriak hain interes handia maitasun erromantikoa zoriontasunerako bide gisa sustatzen jarraitzeko. Hala, biddaltzen dizkieten mezu horien muinean dagoen ideologia irakurtzen ikasten dute.

Zer ondorio dakar neskek mezu horien eraginpean gehiago egoteak?

Oso birus arriskutsua injektatzen ari zaie, eta horrek eragotzi egiten die beren emakume-identitatea eta autonomia eraikitzea. Oso gai larria da: nola erromantikotu den indarkeria matxista. Neskek dute arriskurik handiena mito erromantikoagatik sufritzeko, eta tratu txarreko eta degradazioko harremanak jasateko. Egunero 137 emakume inguru hiltzen dituzte planetan. Osasun publikoko arazoa da, erromantikoa politikoa baita.

Maitasuna ikasketa kulturala bada, zergatik ez zaio garrantzi handiagorik ematen ikastetxeetan, zure ustez?

Sinestezina da Hezkuntza Ministerioa oraindik ere tematzearako, esaterako, gazteak enpresa- eta finantza-munduan sartzeko trebatzen, eta bizitzaren gauza oinarrizkoen narako prestakuntzarik ez ematea. Gaur egun, hezkuntzako profesionalak oso argi dute tresnak behar direla giza harremanekin eta emozioen kudeaketarekin zerikusia duen oro azaltzeko. Pandemiaren ostean, gazteak gainezka dau-

de. Depresio-, antsietate- eta angustia-kasuak ugartu egin dira. Eta, bestalde, urtez urte kezkarriagoak dira neska-mutilek indarkeria matxistaz duten ikuspegiari buruzko datuak.

Zer ondorio dakar eskolan sentimenduei buruzko hezkuntzarik ez emateak?

Ikusten ari garenak: suizidioen kopurua handitzea, osasun mentalak okerrera egitea, matxismoaren eta neskei egindako talde-bortxaketaren gorakada, indarkeriaren gorakada oro har. Maitasuna funtsezko gaia da. Izan ere, kulturak neska-mutilei sine-tsarazi nahi die bakarrik ez egoteko bikotekidea behar dutela. Beraz, min handia egingo dieten sumisio- eta menperatze-egitura izugarrietan murgiltzen dira. Oso garrantzitsua da emozioei eta sentimenduei buruzko hezkuntza eztabaidaren erdigunean jartzea.

Zer egin dezakete ikastetxeek, nerabeei laguntzeko genero-desberdintasunek lekurik ez duten maitasun-bizitzan trebatzen?

Niri funtsezkoa iruditzen zaidan ikasgai bat eman liteke, Zaintzaren ikasgaia: nola zaindu neure burua, nola zaindu neure harremanak, nola zaindu gainerakoak, nola zaindu nire bizitokiak, eta nola zaindu planeta. Sexualitatearen gaia osorik aztertuko litzateke, botere-harremanena, harremanetan jartzen garen botere-egiturena, etab. Hala, denek ulertuko lukete zergatik jokatzaren duten jokatzaren duten bezala, eta zergatik besteen jokabidea desberdina den.